

Ireki app-a eta murgildu
errealitate berri batean!



NAJMAREN MOTXILA



erikidego batzordea
unrwa
euskadi

Palestinako
errefuxiatuekin

TESTUAK: Jorge R. López Benito eta UNRWA Euskadi

ILUSTRAZIOA: Enara Artetxe González eta Jorge R. López Benito

DISEINUA: CreativiTIC

EDIZIOA: CreativiTIC eta UNRWA Euskadi

ARGAZKIAK ETA MAPAK: UNRWA argazki bilduma, Nerea Uriarte Goitia, Jorge R. López Benito, Enara Artetxe González, Oscar Valdebenito, Fjmustak, Sakurai Midori on Wikipedia; kristianwin on pixabay

Bilbao, 2019 urria

ISBN: 978-84-09-16017-4

LEGE GORDAILUA: M-36370-2019

UNRWA Euskadi

Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia

www.unrwaeuskadi.org



Palestinako
errefuxiatuekin

Argitalpen hau UNRWA Euskadik argitaratu du "Euskadiko gazteria Ekialde Hurbileko errefuxiatuen inguruko buloen aurka mugiarazten da" proiektuaren baitan, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntzarekin egin da.



Argitalpen honen edukiek ez dute zertan bat etorri behar Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren iritziekin.



CC by-SA: Creative Commons-en baimenarekin argitaratu dira edukiok.

Aitorpena – Ez-komertziala – Berdinparketekatua (by-nc-sa): Ez dago baimenduta lanaren eta handik eratorritako lanen erabilera komertziala. Lan eratorriak banatzeko, jatorrizko lana arautzen duen baimen bera erabili behar da.

Najmaren motxila hezkuntza helburuetarako argitalpena da. Debekatuta dago bere merkaturatzea.



NAJMAREN MOTXILA

CreativiTIC-ek UNRWA Euskadirentzat sortutako
Errealitate Areagotuko esperientzia bat

AURKIBIDEA

LIBURU HONETAKO ERREALITATE AREAGOTUA ERABILTZEKO ARGIBIDEAK	5
<i>URRIA - LAGUARDIAKO INSTITUTUA, ARABA</i>	<i>6</i>
NAJMAREN ESKUTITZA	7
NAHIAREN ESKUTITZA	15
EGUN ARRUNT BAT	18
<i>HURRENGO GOIZEAN.....</i>	<i>18</i>
<i>ESKOLAN</i>	<i>22</i>
<i>KLASEAN</i>	<i>23</i>
<i>ARRATSALDEAN.....</i>	<i>29</i>
<i>EGUNAREN AMAIERAN.....</i>	<i>34</i>
ETORKIZUNA.....	36
NAJMA UNIBERTSITATERA DOA.....	37
NAJMAK GKE BATEAN LAN EGITEA ERABAKITZEN DU	38
JASIMEK ETA NAJMAK NAHIA BISITATZEN DUTE EUSKADIN.....	39
NAJMAK EMAKUMEEN ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO IBILBIDEARI EKITEN DIO.....	40
UNRWA, LAN EREMUAK	41
NORTZUK GARA?	42

LIBURU HONETAKO ERREALITATE AREAGOTUA ERABILTZEKO ARGIBIDEAK

Zer da Errealitate Areagotua?

Errealitate Areagotuak inguratzen gaituen munduari buruzko elementu birtualak bistaratzeko aukera ematen digu, gailu mugikor baten edo betaurreko berezien bidez.

Liburu honetan hainbat irudi aurkituko dituzu, eta sakelako telefonoa edo Tableta erabiliz Errealitate Areagotuko esperientziak bizitzeko aukera izango duzu.

Nola ikusi ditzaket Errealitate Areagotuko irudiak?

1. Zure mugikorreko Android/iOS Store-tik "Najmaren Motxila" aplikazioa deskargatu, zure gailuan instalatu eta ireki.
2. Ondorengo ikurra duten irudiak bilatu:



3. Zure gailuko kamera irudiaren gainean jarri eta gozatu Errealitate Areagotuz!




JARDUERA



Liburuan zehar motxilaren hainbat atal topatuko dituzu. Kamera motxilaren gainean jarri eta prest zaude proposatzen zaizkizun jarduerak burutzeko!

URRIA - LAGUARDIAKO INSTITUTUA, ARABA.



Kaixo! Nire izena Nahia da, 16 urte ditut eta Laguardiako institutuan ikasten dut.

Gaur gizon eta emakumeen artean berdintasuna eta justizia soziala sustatzen dituen elkarte feminista palestinar bat klasera etorri da. Esan digutenez, sare-proiektu bat sortuko dugu, Euskadi eta Palestinaren arteko balio solidarioak sustatzeko.



Euskadi eta Palestinako lurralde okupatuen kokalekua, Mediterraneo itsasoa erreferentziazat hartuta

Palestinako neska-mutil errefuxiatuek idatzitako eskutitzak banatu dizkigute, elkar ezagutu dezagun. Urrun egon arren teknologia berrien bitartez taldeka lan egitea posible denez, genero berdintasuna, giza eskubideak edo solidaritatea bezalako gai ezberdinak landuko ditugu.

Gutuna irakurri eta nire lagun berria ezagutzeko irrikitan nago.
Ziur zu ere berdin zaudela!

NAJMAREN ESKUTITZA

Kaixo! Nire izena Najma da eta 16 urteko ikaslea naiz.

Palestinan jaio nintzen, Zisjordania erdiko herri txiki batean, Ramallah-tik hurbil. Bertako oroitzapen onak ditut. Nire familiak arkumeak, gari zelaiak eta haizerrota bat zituen, non ogia egiten genuen gero merkatuan saltzeko. Gari artean izkutatzera jolastea eta nire amona eta nire aita nire bila etorri behar izatea asko gustatzen zitzaidan.



6 urte bete nituenean nire amonak giltza forma zuen zintzilikari bat oparitu zidan. Beharbada ez duzu jakingo, baina Palestinako errefuxiatuentzat, giltzak esanahi oso berezia dauka: jaio ziren herri eta etxeetara itzultzeko itxaropenaren sinboloa da, duela 70 urte baino gehiago atzean utzi behar izan zituztenak. Nire amonak kontatu zidan nire aitonak eta berak ihes egin behar izan zutela ume batzuk baino ez zirenean, arabiar-israeldar gerra zela eta. Horregatik, gure jatorria inoiz ahaztu ez dezagun, nire amonak giltza forma eta bere herriaren izena idatzita duen zintzilikario hau oparitu zidan. Momentu horretatik aurrera beti daramat nirekin.



1948an, arabiar-israeldar gerraren ondorioz, 700.000 palestinarrek ihes egin zuten beraien lur, etxe eta oroitzapenak atzean utziz eta errefuxiatu bihurtuz. Gaur egun 5 milioi baino gehiago dira, munduko errefuxiatu guztien herena eta Siria, Libano, Jordania eta Palestinako lurralde okupatuan (Zisjordanian eta Gazako Zerrendan) bizi dira. Beraien egoera hobetuko duen irtenbide justu eta behin betikoaren zain jarraitzen dute. 50 urte baino gehiago irauten duen Palestinako okupazioak, 10 urte baino gehiagoko Gazako blokeoak eta Siriako gerrak, bizitzen duten krisi humanitarioa sakondu dute.

* (liburu amaieran dagoen UNRWA-ren lan eremuaren mapa ikusi)



Palestinako errefuxiatuak Nakba garaian,
1948an

Ni Palestinako errefuxiatuen hirugarren belaunaldiaren parte naiz eta urtean behin Nakba ospatzen dugu, "hondamendia", nire amonak bezala gaur egun itzulerarik izan ez duen exodo bati ekin behar izan zioten pertsonen oroimenez.

Ez gara herri hartan bizi jada. Nire aiton-amonei gertatu zitzaien bezala, nire familiak alde egin behar izan zuen eta hutsetik hasi leku berri batean: errefuxiatuentzako Amari kanpamentuan.



Ramallah-ko Am'ari errefuxiatuen kanpamentuko sarrera



Gaur egun Zisjordanian 250 kokaleku israeldar daude, formalak eta informalak. Nazioarteko Eskubide Humanitarioak ilegaltzat ematen dituen kokaleku hauek hedatzeak, lurren konfiskatze politikek, eraikitzeko murrizketak eta etxebizitza, eskola eta saltokiak botatzeak, familia palestinar askoren nahitaezko lekualdatzea eta beraien etheen galera eragiten ditu.




Zisjordaniako kolonia israeldar bat

Gure kasuan herritik alde egin behar izan genuen nik 8 urte nituela, israeldar soldaduek herria suntsitu eta bertan kokaleku kolono bat eraikitzea erabaki zutelako. Oso momentu tristea izan zen. Ezin izan dugu inoiz itzuli.

Nire aiton-amonekin batera, kanpamentura nire ama Farah, nire aita Saïd, nire ahizpa nagusia Kala eta ni heldu ginen. Hemen jaio dira nire ahizpa Haala eta Ghasem txikia, 4 urte dituen eta oso bihurria dena. Aldaketa hau nire gurasoentzat oso gogorra izan zen. Nire aitak lanbide berri bat ikasi behar izan zuen, hemen baserririk ez baitago, eta orain autobus gidaria da.

Nire amak zaintza lanak egiten ditu: familia ugaria hazi eta hezi du eta orain nire aiton-amonak zaintzen ditu, nagusiak direnez arreta gehiago behar dute eta. Gainera, pastelak saltzen dizkie jatetxeei edota merkatuan saltzen ditu bere kasa. Asko kostatu zitzaidan kanpamentuko bizitzara moldatzea. Espazio txiki batean pertsona ugari bizi diren toki batera ailegatu nintzen. Bat-batean etxez betetako kale estuez inguratuta aurkitu nuen neure burua, etxe bakoitza bata bestean gainean kokatuta daudela. Askotan pentsatzen dut hemendik alde egitea eta munduan zehar bidaiatzea gustatuko litzaidakela.



Najma, neskato bat zen garaian, Am'ari-ko kale estuetan

Hemen kanpamentuetako argazkiak ikus ditzakezu





UNRWak 58 kanpamentu kudeatzen ditu, horietako 19 Zisjordanian daude eta 8 Gazako Zerrendan. *(liburu amaieran dagoen UNRWA-ren lan eremuaren mapa ikusi)



Najma bizi den Am'ariko kanpamentuaren kokalekua

Haala eta Ghasem UNRWako lehen hezkuntzako eskolara doaz. Nire ahizpa Kalak diseinua eta zurgintza ikasi zituen Ramallah Women's Training Center-ean (RTWC), UNRWako lanbide heziketako zentroan. Orain hiriguneko palestinar artea saltzen duen denda super moderno batean lan egiten du diseinatzaile bezala. Oso harro nago berarekin.




Lanbide Heziketako ikasle talde bat

Argazkilaritza, margolaritza eta istorioak idaztea gustatzen zait. Nire ahizpak ikasi zuen zentro berean ikasten dut. Aurten diseinu grafikoko espezializazioa hasi dut eta, amaitzen dudanean, unibertsitatean ikasten jarraitu nahi dut. Unibertsitatera doan nire familiako lehena izan nahi dut.

Lagun berri bat egiteak asko pozten nau, etorkizunean zu bisitatu eta Euskadi ezagutu ahal izateko eta baita zu hona gonbidatzeko ere. Zure eskutitza jasotzeko irrikitan nago.

Musu handi bat zure lagun berriaren partez! Najma.



JARDUERA

Balio hauetako zein ikusi duzu Najmarengan?
Aukeratu bat eta bere motxilan sartu!



NAHIAREN ESKUTITZA

Najmak eskutitza idatzi eta bi hilabetera, Nahiaren erantzuna jasotzen du.

Kaixo Najma!

Nire izena Nahia da eta nik ere 16 urte ditut.

Zure eskutitza eta bertan kontatzen duzun guztia irakurtzea asko gustatu zait. Ni Laguardian jaio nintzen, Arabako herri txiki eta polit batean, Euskadin. Betidanik hemen bizi izan naiz, nire ama eta amamarekin. Nire gurasoak orain dela zenbait urte banandu ziren. Nire aita orain Bartzelonan bizi da bere emazte berriarekin. Seme bat izan zuten eta nik orain urte bateko neba txiki bat daukat, Carles.



Laguardia mahastiz inguratuta dago. Zuk bezala, nik ere txikitan mahasti artean izkutatzen jolasten nuela gogoratzen dut. Ardoa oso famatua da hemen eta pertsona gehienek upeltegietan lan egiten dute, nire gurasoek bere garaian baita ere. Nire amak salmenta kudeaketan lan egiten zuen baina upeltegia itxi zuten eta berriz hasi behar izan zuen hutsetik. Orain banku batean lan egiten du.



Zer konta diezazuket neure buruaz? Katu bat daukat, kirola egitea gustatzen zait eta gitarra jotzen dut.

Erizaintzako laguntzaile ikasketak egiten ari naiz Laguardiako institutuan. Zuk bezala, unibertsitatera joan nahi dut eta medikuntza ikasi. Burujabe izan, lan bat aurkitu eta bidaiatzeko gogoak ditut! Zure lurra ezagutzea pilo gustatuko litzaidake...

Palestinako lagun berri bat egiteak asko pozten nau eta ziur nago lagun minak izango garela.



Musu handi bat, Nahia.

EGUN ARRUNT BAT

HURRENGO GOIZEAN



Ramallah-ko ikuspegi panoramikoa (Zisjordania)

Najma goiz jaikitzen da, 7:00rak inguruan. Te beroa hartzen du eta bere aita eta ahizparekin alaitu solasean ari da Saïdek Ramallah-ko geltokira kotxez hurbiltzen dituen bitartean. Bertan lan egiten du Saïdek Nabluserako minibus bat gidatzen. Geltokian, Najma eta Kalak bide ezberdinak hartzen dituzte: Kala lanera doa arte dendara eta Najma institutura ikastera. Etxetik irteten direnean, ama altxatu eta Haala eta Ghasem eskolara joateko prestatzen ditu. Gero etxera itzultzen da etxea txukundu, aiton-amonak zaindu eta janaria prestatzera.

08:30etan Ramallah-n eta 07:30etan Laguardian, Najmaren sakelako telefonoan whatsappak dar-dar egiten du. Nahia da:





NAHIA



Kaixo! Autobusean jada? Ni gaur lozorroan nago, bart serie berri bateko lehenengo kapitulua ikusten geratu nintzen eta.

مرحبا- Ez, lo hartu dut! Asteburu honetan familia bisitatzera joan ginen, Nablusera. Atzo oso berandu heldu ginen etxera irteerako checkpoint-eko itxaronaldia eta itzulerako bidean errepide kontrola zirela eta. Orduak pasa ziren etxera ailegatu ginen arte, guztiz nekatuta heldu nintzen! Orain nire autobusa galdu dut eta hurrengoa itxaroten ari naiz.

07:32 ✓✓




Kontrol militarra gurutzatzeko ilara egiten duten pertsonak.

07:33 ✓✓

Arraioa! Ba ezin gara berandu iritsi! Lehenengo klasean skype-a dugu eta!

مرحبا- Kaixo arabieraz



Hemen harresiko eta
Checkpoint-etako argazkiak
ikus ditzakezu




Harresiko ikuspegia Zisjordaniatik



2002 urtean, Israel Harresia eraikitzen hasi zen. Horren ondorioz, 60 palestinar komunitate inguruk bi eta bost aldiz luzeagoak diren ibilbideak hartzera behartuak daude oinarrizko zerbitzuetara, eskola edo ospitaleetara ailegatzeko. Gainera, harresiak landa eremu edo baratzeetarako sarrerak murrizten ditu. Horrez gain, Zisjordanian 705 bat oztopo daude zirkulazio askea trabatzen dutenak; hala nola, Israelgo militarrek ezarritako kontrol iraunkor edo mugikorak [checkpoint-ak], lur muino eta errepide edo bide blokeoak, errepideetan edo beste bideetan kokatutako ateak, etab. Horietatik erdiak beti itxita daude.



Palestinako lurralde okupatua



JARDUERA

Balio hauetako zein ikusi duzu Najmarengan?
Aukeratu bat eta bere motxilan sartu!




ESKOLAN

Gaur bi institutuen arteko lehenengo skype eguna da. Irakasleek konexioa prestatzen dute eta algara handia sortzen da ikasleek elkar agurtzen dutenean. Klaseko pertsona guztiak hunkituta daude. Najmak eta Nahiak elkar bilatu eta agurtzen dute, pozik biak garaiz iritsi direla ikustean.

Irakasleak beraien buruak aurkezten hasten dira, nortzuk diren eta hezkuntzan iardutea zeraatik erabaki zuten kontatuz.

Lehenik, Nagorek hitz egiten du, Nahiaren irakasleak. Genero-berdintasunean eta justizia sozialean sendo sinesten du. Gaur egun balio etikoko klaseak ematen ditu institutuan eta euskal GKE feminista batean parte hartzen du. Elkartean emakume palestinarrekin elkartruke bidai bat antolatu zuten eta joan den udan Gazako Zerrenda eta Zisjordania bisitatu zituen.



Amalek, Najmaren irakasleak, Palestinako errefuxiatuentzat bizitza beti ez dela erraza izan kontatzen du, heziketa bat jasotzea, eskubidea izanik ere, ez dago bermatua. Berak 3 ordu egin behar zituen egunero etxetik eskolara joateko, checkpoint-ak zirela eta.

Ezin izango du ahaztu bere lehengusina bat, 13 urterekin, eskola utzi eta gutxira ezkontzera behartu zuten eguna, oraindik umea zelarik. Arrazoi hori zela eta, edozein umek eskolara joateko aukera izan dezan ziurtatzeko lan egitea erabaki zuen. Orain, 20 urte geroago, UNRWako Ramallah Women's Training Center-eko (RWTC) irakasle eta zuzendaria da.

Momentu honetan Palestinan 20.902 irakasle errefuxiatu baino gehiago daude Palestinako ume eta gazte errefuxiatuei klaseak ematen dizkietenak.

Hemen UNRWako eskola eta
Lanbide Heziketako ikastetxeetako
argazkiak ikus ditzakezu




UNRWAK guztira 708 eskola, 8
heziketa zentro eta hezkuntza zientzien 2
fakultate kudeatzen ditu; bertan 542.226
ikaslek heziketa jasotzen dute.



UNRWako ikasleak Lanbide Heziketako ikastetxe batean

KLASEAN

Klasean lantzen dituzten lehenengo gaiak genero-berdintasuna eta enplegua dira. Nahiak eta Najmak jada hitz egin dute honi buruz skype bidez.





Eta zure aitak, zertan lan egiten du? 🤔



Nire aitak enologia ikasi zuen, bainaartzelonen bizi denetik produktu ekologikoko denda bat dauka. Oso ondo doakio. Bisitatzera noan bakoitzean maleta ontziz beteta ekartzen dut 😊😊



Hara! Ziur nago nire aitari zurea ezagutzea gustatuko litzaiokeela. Txikia nintzenen berarekin joaten nintzen merkatura baserriko produktuak saltzera. Ziur asko elkarrekin ondo moldatuko ziren 😊



Nire amak enpresen kudeaketa ikasi zuen. Nire aitarekin upeltegian lan egiten zuen, baina itxi zutenetik berriz hasi zen ikasten. Urte gogorak izan ziren langabezian geratu zelako. Emakume batentzat zaila da berriz lan-mundura bueltatzea, ez zuen nire aitak bezain erraz izan. Baina asko ahaleginduz eta nire amamaren laguntzarekin, bera zen nitaz arduratzen zena, enpresa zientzietan lizentziatu zen.



Nire amak aiton-amonak zaintzen ditu eta etxeaz arduratzen da, eta behar dugun guztia badaukagula ziurtatzen du. Beragatik izango ez balitz, nahaspila hutsa izango litzateke. Betidanik entzun diot jatetxe bat ireki nahi duela, oso ondo sukaldatzen baitu, baina hemen oso zaila da aurrera egitea. Ni berarekin oso harro nago. Nire herrian emakumeek gogor lan egiten dute familia aurrera eramateko, nire amonak sukaldean laguntzen jarraitzen du egunero. Bien artean jatetxea ireki izan balute bezala da, baina dirurik irabazi gabe.



Emakume palestinar askok aukera gutxi aurkitzen dituzte lan merkatu formalean, beraz, etxean ez ezik, sektore informalean ere lan egiten dute, nekazari, jostun edo saltzaile bezala, gehienetan eskubiderik gabeko lan-baldintza prekarioetan. Horretaz gain, emakumeek betetzen dituzten zaintza eta bizitzaren iraunkortasunarekin erlasionatutako eginkizunek, normalean ikusezin bihurtuak, komunitateak aurrera jarraitu eta okupazioaren eraginei aurre egitea ahalbidetzen dute.



Zaintza-lana agerian jarri eta ezagutaraziko balitz! Nire amak ere etxea aurrera eraman izan du eta egun osoan leku batetik bestera korrika dabil, lan-bizitza eta nire amamak, orain gurekin bizi denak, behar duen zaintzarekin bateratzen saiatuz, eta ni zaintzen ere bai.



Nire amak ere ez dakit nondik ateratzen duen denbora merkatuan mutabbaq-ak saltzeko, gazta pastel goxo-goxoak. Horrekin aparteko diru bat irabazten du, oso ondo datorkiguna. Dastatu behar dituzu! 😊





Ene, gose naiz orain! Dozena bat erosiko nizkioke. Ba nik pentsatzen dut ezberdintasun hauekin amaitzeko borroka egin behar dugula eta emakumeen eskubideekin aurrera jo behar dugula, hemen zein Palestinan. Niri unibertsitatera joatea gustatuko litzaidake eta nolabait aldaketa horretan parte hartzea.



Bai, hori da nire ahizpa Kalak egin duena. Txikitatik oso esku ona izan du, artisautza lanetan trebea zen. Diseinua eta zurgintza ikasi zuen. Orain bere dirua irabazten du eta aurretzen ari da. Bere ametsa Ramallah-n etxe bat erostea da. Kala niretzako eredu bat da, bere ametsak bete eta autonomia lortzeko gogor borrokatu baitu.






2018an, Zisjordaniako langabezia tasa %19a izan zen eta Gazako Zerrendan ia %54a, inoiz baino handiagoa. Emakume palestinarren partaidetza lan indarrean oso baxua da (%21a) gizonezkoenarekin alderatuz gero (%71a). Gizon eta emakumeen arteko parekidetasun eza soldata arrakalean ere azaleratzen da: emakumeen batez besteko soldata 92 SIB* dira, gizonezkoen 129 SIB*ekin konparatuta. *SIB edo sequel israeldar berria, Israeleko dirua da.

Hemen emakumea eta enpleguari buruzko argazkiak ikus ditzakezu






JARDUERA

Balio hauetako zein ikusi duzu Najmarengan?
Aukeratu bat eta bere motxilan sartu!



ARRATSALDEAN

Jan ostean Nahia Najmarekin berriz txateatzen du:



Kaixo! Jasim! Ezagutzen dut! Gazako Zerrendan bizi da, Zisjordaniarekin batera Palestinako lurralde okupatuaren parte dena. Gaza lur zerrenda luze eta estu bat da, 40 kilometro ingurukoa, Mediterraneo itsasoaren ondoan. Bertan ia bi milioi pertsona bizi dira eta %80a errefuxiatuak dira. Bertako egoera Zisjordaniakoa baino konplexuagoa da, 2007tik lur, itsaso eta aire blokeoa sufritzen baitute.

15:34 ✓✓

Zer esan nahi duzu blokeoarekin?

Jendeak muga handiak dituela sartu eta irteteko, ondasunak inportatu eta esportatzeko, eta arrantza egitera ateratzeko, adibidez.

15:36 ✓✓



Neska-mutilak Gazako hondartzan jolasten

15:37 ✓✓

Orain ulertzen dut elektrizitate mozketarena. Puf! Ezinezkoa egiten zait hori guztia jasan behar izatea imajinatzea. Ezingo nuke Bartzelonara joan nire aita bisitatzerara, edo berak ezingo luke hona etorri ni ikusterara!! Oso egoera gogorra izango litzateke. Eta zuk, noizbait Gazako Zerrendan egoteko aukera izan duzu?

Bai, UNRWari esker. Uda batzuetan kanpamentuak antolatzen dituzte, "Summer Fun Weeks (SFWs)" izenekoak. Bertan, Zirjordaniano gazteak Gazara joan gaitezke egun batzuk pasatzera eta bertako gazteekin ekintzak egitera. Ni joan den udan egon nintzen eta bertan Jasim eta bere lagun taldea ezagutu nituen.

15:39 ✓✓



Gazteak "Summer Fun Weeks"-en baitan antolatutako ekintzetan

15:40 ✓✓




Hara! Zeinen interesgarria den zurekin proiektu honetan Palestinako errefuxiatuei buruz ikasten ari naizen guztia. Bihar nire lagunarekin hitz egingo dut Jasim ezagutzeko. Eta nire irakaslearekin, Nagorerekin, ere bai. Bere elkartean izena eman nahi dut emakume sarean kolaboratzeko. Lehen ez nintzen konturatzen baina, gauza txikiak badira ere, asko eqin dezakegu elkarri laguntzeko.





Gazako Zerrendako biztanleria-dentsitatea munduko handienetakoa da (4.000 pertsona baino gehiago km² bakoitzeko). 2007an, blokeoa hasi zenetik, Gazako biztanleriak hainbat eraso militar jasan ditu, bereziki emakumeen bizi-baldintzak hondatuz. Hortaz, emakumeek eta neskek ardura gehiago hartu dituzte bere gain, askotan egoerak gaindituta, estresatuta edo goibelduta sentitzen direlarik bat-bateko galerak edo ardura horien ugaritzeak direla eta.




Palestinako lurralde okupatua. GAZako zerrenda

EGUNAREN AMAIERAN

Nahia eta Najmaren eskutitzak gogoratzen badituzu, nahiz eta hasiera batean amankomunean ezer ez zutenik pentsa zezaketen, balio berdinekin ados zaudetela eta zuen eguneroko ametsak bete ahal izateko elkar lagun dezakezuela ikasi duzue. Oso pozik sentitzen dira elkar ezagutu izanagatik eta laguntasun hori beraien artean eta zurekin partekatu ahal izateagatik.






JARDUERA

Balio hauetako zein ikusi duzu Najmarengan?
Aukeratu bat eta bere motxilan sartu!




ETORKIZUNA



JARDUERA


Ia 10 urte igaro dira eta Najma eta Nahiaren bizitzetan gertakizun ugari egon dira. Erabaki ahal izango bazenu, hurrengo 4 aukeren artean zein gustatuko litzaizuke irakurri duzun istorioaren jarraipena izatea?




JARDUERA

Taldean, erantzun ondorengo galderei:

- Bere ikasketak bukatu ondoren, Najmak lana erraz topatuko duela uste duzu?
- Zer nolako erronkak aurki ditzake bere familia eta lan-bizitzak bateratzeko?
- Euskadin halakorik gertatzen dela uste duzu?
- Zeintzuk dira Najmarentzat aukeratu dituzun balioak? Non aurki ditzakezu balio horiek zure eguneroko bizitzan? Beste balioen bat gehituko zenuke?



NAJMAK GKE BATEAN LAN EGITEA ERABAKITZEN DU ETA NAHIA ZISJORDANIARA BISITAN DOA, BOLONDRES GISA, BERTAN BOLUNTARIOTZA EGITEN DAGOELARIK



JARDUERA


Taldean, erantzun ondorengo galderei:

- Zeintzuk dira zure ustez Najmak GKE-arekin Zisjordanian landuko dituen gaiak? Zergatik?
- Zergatik uste duzu Nahiak boluntario izatea erabakitzen duela?
- Zer nolako errealitatea aurkituko du Nahiak Zisjordanian?
- Zeintzuk dira Najmarentzat aukeratu dituzun balioak? Non aurki ditzakezu balio horiek zure eguneroko bizitzan? Beste balioen bat gehituko zenuke?



Hemen zure motxilan
sartu dituzun balioak
ikus ditzakezu






JARDUERA




Taldean, erantzun ondorengo galderei:

- Jasimek Euskadira bidaiatu ahal izango duela uste duzu?
- Zer nolako errealitatea aurkituko dute Najmak eta Jasimek Euskadira ailegatzean?
- Najma ezagutuko bazenu, Palestinako errefuxiatua dela imajinatuko al zenuke? Zergatik?
- Zeintzuk dira Najmarentzat aukeratu dituzun balioak? Non aurki ditzakezu balio horiek zure eguneroko bizitzan? Beste balioen bat gehituko zenuke?





NAJMAK EMAKUMEEN ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO IBILBIDEARI EKITEN DIO



JARDUERA

Taldean, erantzun ondorengo galderei:

- Palestinako emakume errefuxiatu batek politikoki edo sozialki parte hartzea arrunta dela uste duzu?
- Emakumeen edota erakunde feministen barnean emakumeen eskubideak defendatzea posible duela uste duzu? Zergatik?
- Zeintzuk dira Najmarentzat aukeratu dituzun balioak? Non aurki ditzakezu balio horiek zure eguneroko bizitzan? Beste balioen bat gehituko zenuke?






erkidego batzordea
unrwa
euskadi

Lan eremuak

Tokiko biztanleria



Guztira: 5.869.733

MEDITERRANEAR ITSASOA

- 532.173 pertsona erregistraturik
- 12 kanpamentu ofizial
- 67 eskola
- Heziketa profesionaleko zentru 1
- 27 osasun zentru
- Emakumeentzako programetarako 8 zentru
- Komunitate kooperaziorako zentru 1

- 618.628 pertsona erregistraturik
- 9 kanpamentu ofizial
- 101 eskola
- Heziketa profesionaleko zentru 1
- Oinarrizko osasuneko 26 zentru

LIBANO

SIRIA

QUNEITRA

GOLAN

ISRAEL

ZISJORDANIA

JORDANIA

GAZAKO
ZERREDA

- 997.173 pertsona erregistraturik
- 19 kanpamentu ofizial
- 96 eskola
- 2 formakuntza zentru
- 43 osasun zentru
- Emakumeentzako programetarako 19 zentru
- Komunitate-erreabilitaziorako 10 zentru

- 1.435.616 pertsona erregistraturik
- 8 kanpamentu ofizial
- 267 eskola
- 2 formakuntza zentru
- 22 osasun zentru
- Emakumeentzako programetarako 7 zentru
- Komunitate-erreabilitaziorako 7 zentru

- 2.286.643 pertsona erregistraturik
- 10 kanpamentu ofizial
- 171 eskola
- Heziketa profesionaleko 2 zentru
- 25 osasun zentru
- Emakumeentzako programetarako 14 zentru
- Komunitate-erreabilitaziorako 10 zentru

1948an ezarritako kanpamentuak	1967an ezarritako kanpamentuak	Biztanleria
		600 - 25,000
		25,000 - 50,000
		50,000 - 110,000

Checkpoint
 Bukatutako murrak
 Eraikitzen dagoen murrak
 Asmoetan dagoen murrak

*Erregistratutako errefuziak eta UNRWEn zerbitzuengatik erregistratutako beste pertsona batzuk barne. Zifra guztiak 2018ko urterekin eguneratuak izan dira.
 United Nations relief and works agency / وكالة الأمم المتحدة لإغاثة وتشغيل اللاجئين الفلسطينيين في الشرق الأدنى

NORTZUK GARA?

UNRWA, Ekialde Hurbilean dauden Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia da. Agentziak 5,5 milioi errefuxiaturi laguntza eta babesa eskaintzen die beraien egoeraren konponbide justu eta iraunkor baten zain dauden bitartean. Duela zazpi hamarkada baino gehiagotik Agentziak hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak eta laguntza humanitarioa eskaini dizkie Palestinako errefuxiatuei Jordania, Libano, Siria, Gazako zerrenda eta Zisjordaniako kanpamentuetan. UNRWAk 708 eskolatik gora kudeatzen ditu Ekialde Hurbilean zeinetara miloi eta erditik gora ikasle joaten diren. Halaber, Agentziak Lehen Mailako 144 osasun zentro, emakumeentzako 61 zentro eta 38 errehabilitazio zentro kudeatzen ditu, eta baita komunitateari zuzendutako zerbitzuak eskaintzen dituzten beste hainbat zentro ere.

ETA EUSKADIN, ZER EGITEN DUGU?

UNRWA Euskadi 2006an sortu zen bi helburu nagusirekin: Euskal gizarteari palestinar errefuxiatuek bizi duten egoeraren berri ematea eta UNRWAk burutzen duen lan humanitarioa euskal gizartean ezagutaraztea.

Horretarako, bi alorretan egiten du lan:

1. Garapenerako Lankidetzako eta laguntza humanitarioko proiektuetan.
2. Hiritartasun Globalerako Hezkuntza proiektuetan.

Hiritartasun Globalerako Hezkuntzako proiektuen barruan, UNRWA Euskadiko taldeak hiru esparrutan lan egiten du:

1. Hezkuntza proiektuak. Hainbat ekintza eta ekimen antolatuz, adibidez; bideoforoak, antzerkiak, hitzaldiak, komiki tailerrak, erakusketak, etab.
2. Formakuntza-lkerketak. Unibertsitate eremuari, irakasleei eta garapenerako lankidetzako elkarte, laguntza humanitarioko elkarte, emakume elkarte, etab.-i zuzendutako ikastaro eta tailerrak antolatuz.
3. Sare ezberdinen sorrera. Euskal emakume elkarte eta elkarte feministen eta Palestinako emakume eta elkarte feministen arteko jakintzen sorkuntza, esperientzien trukaketa eta aliantzak eratzea, estrategia solidario gisa.



NAJMAREN MOTXILA



erikidego batzordea
unrwa
euskadi

Palestinako
errefuxiatuekin



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO